

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a

623. zenbakia

**MERKATARITZA** / Txartela eskatzen duten lehen 500 lagunaren artean 500 euroko bi erosketa-bono zozketatuko dituzte

## Herriko merkataritza suspertzeko asmoz Bedelkar Txartela kaleratu dute dendariak

E.M.

Irungo, Oñatiko edo Eibarko dendariak egin bezala, Bergarako dendariak herriko merkataritza suspertzeko ekimen berria jarri dute abian: Bedelkar Txartela.

Dagoeneko hamar urte baino gehiago igaro dira Bedelkar herriko dendarien elkarteak sortu zenetik. Orain, esan bezala, herriko merkataritza suspertzea helburu duen txartela kaleratu dute. Tere Gabilondo Bedelkarreko presidentek zera esan digu: "Jendea ohituta dago txartelak erabiltzera eta herritarrek Bergaran kontsumitzea da gure helburua. Era berean, txartelak hainbat abantaila eskainiko dizkigu dendarioi zein erosleei".

Bedelkar Txartela doanekoa da eta egindako erosketak hiru hilabeteotan 2.000 txartel banatzea da helburua.

ordaintzeko aukera ematen du. Bat-bateko kontsumo kreditua eskaintzen du txartelak. Bedelkar Txartelarekin egindako ordainketak eskatzaileek hautaturiko bankuan helbideratuko dituzte. Erosleek modu erosoan ordaindu ahal izatea da txartelaren helburuetako bat. Bedelkarreko bazkide gehienak bai, baina denek ez dute txartelarekin ordaintzeko aukera eskainiko.

### ZOKKETA LEHEN 500 ESKAEREN ARTEAN

Esan bezala, dagoeneko Bedelkar Txartela eskuratzeko eskakera egin daiteke herriko dendetan zein Nafarroako Rural Kutxan, Irizar pasealekuan. Lehenengo 500 eskaera egiten dituztenen artean, 500 euroko bi erosketa-bono zozketatuko dituzte.

Bedelkarrek egindako aurreikuspenen arabera, datozen hilabeteotan 2.000 txartel banatzea da helburua.



Herritarrek Bergaran kontsumitzearen aldeko urratsak ematea da Bedelkarrekoen helburua.

E.M.


## Etorkinendako euskara ikastaroa igandeetan, Udalaren eskutik

E.M.

Etorkinei euskara hurbiltzeko asmoz, euskara ikastaroa antolatu du Udalak. Eskolak domeketan izango dira, maiatzaren 1ean hasita. Izenematea zabalik dago udaletxean, astelehenera arte.

HABEK prestatutako Aisa materialean oinarritutako harrera ikastaroa izango da etorkinei eskainiko zaiena. Ikastaroaren helburu nagusia zera da: euskal gizartea ezagutzeko beste aukera bat eskaintzea eta euskara ikasteko lehen urratsak ematea.

Esan bezala, eskolak igande goizetan izango dira, maiatzaren 1ean hasita. Hurrengo bederatzidomeketan (Mendekoste domekan salbu) hiru orduko eskolak hartzeko aukera izango dute etorkinek Udal Euskaltegian, 09:30etik 12:30era.



Eskolak Udal Euskaltegian izango dira, maiatzaren 1ean hasita.

BERRIGARA

### Udal Liburutegia, plazara


Bihar, zapatua, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Hori dela eta, Udal Liburutegia udaletxeko arkupean izango da gaur eta bihar. Kontsultak, maileguak, erreserbak edota liburutegi- eta bazkide txartelak egiteko aukera izango dute herritarrek. Bestalde, gaur, egubakoitza, Iñaki Martiarena *Martin* ilustratzaileak saio bat eskainiko du udaletxeko arkupean, 17:30ean.

### IZENEMATEA, ASTELEHENERA ARTE

Asistentzia ziurtatzeko, izena emateko orduan 20 euroko matrikula ordaindu behar da eta ikastaroan %80ko asistentzia dutenei

osorik bueltatuko zaie ordaindutako kopurua.

Izena emateko epea astelehenera arte (apirilak 25) dago zabalik, Udaleko Euskara Zerbitzuan.



# UDABERRIA ODOL BERRIAREN ITURRIA BALIA KAZU GURE ESKAINTZA BEREZIAK!

🌸 Gure eskaintza berezietz gain, PICNIC-eko burusi bat oparituko dizugu, soilik aurrerakontua eskatzeagatik\*



Hurbilen duzun  
sukurtsalean  
itxaroten  
zaitugu



HAUTESKUNDEAK / 2.013 herritarrek babestu zuten EH ordezkatu duen aukera, 2001ean baino 2,9 puntu gehiago

# EAJ-EA garaile Bergaran, 10 puntu galduta baina

BERRIGARA

Domekako hauteskunde autonomikoetan EAJ-EA koalizioa izan zen garaile Bergaran. Hala ere, orain dela lau urteko hauteskundeekin alderatuta, boto ugari galdu ditu EAJ-EAk. EHAK alderdiak hiru puntutan hobetu zuen EHk 2001ean lortutako emaitza.

Esan bezala, EAJ-EA izan zen lehenbiziko indarra domekako hauteskundeetan, 3.871 botorekin. Jasotako botoen %44,59 lortu zuen koalizioak. Duela lau urte %54,9koa izan zen portzentaje hori. EHAK izan zen boto gehien eskuratu zuen bigarren alderdia. 2.013 herritarrek babestu zuten EH ordezkatu duen aukera. 2001eko datuekin konparatuz, hazkunde nabaria izan dute portzentajeari begiratuta behinik behin: %20,8koa 2001ean, %23,7koa domekan.

PSE-EEK ere gora egin du Bergaran: 2001ean baino 33 boto gehiago jaso dituzte sozialistek. Aralar izan da laugarren indarra, 782


herritarren babesarekin. Bestalde, PP izan da beherakadarik nabarmena izan duena: duela lau urte 1.021 boto jaso zituen eta aurten,

**PSE-EEK eta Ezker Batuak gora; Aralar laugarren eta PPK beherakada nabaria**

berriaz, 512 (botoen %9,9 izatetik %5,9 izatera igaro da alderdi popularra). Azkenik, Ezker Batua orain dela lau urteko emaitzara hurbildu da. Oraingoan 3 boto gutxiago jaso arren, portzentajea ia 1 puntu baten hobetu dute.

#### ABSTENTZIOAK GORA

Abstentzioak nabarmen egin du gora aurtengo autonomikoetan. 2001ean %18,6koa izan zen eta aurten, berriaz, %30,3koa izan da. 8.735 lagunek eman zuten botoa.



Erroldan dauden 12.445 herritarretatik, 8.735 lagunek eman zuten botoa.

## 2005eko hauteskunde autonomikoak Bergaran

	Hautesle errolda		Abstentzioa		EAJ		EHAK		PSE-EEK		PP		IU		ARALAR		Beste batzuk	
	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001
<b>Erdialdea</b>	6.098	6.003	%17,5	%17,1	2.009	2.828	1.007	1.009	429	393	247	463	253	275	441	-	11	4
<b>Matxiategi</b>	3.408	3.191	%31,9	%19,6	1.043	1.345	539	497	318	301	161	308	111	112	171	-	7	3
<b>Martoko</b>	1.139	2.101	%31,7	%23,1	317	799	175	314	105	203	40	203	69	86	79	-	3	5
<b>Ibarra</b>	908	922	%38,6	%20,3	217	462	111	184	97	33	51	29	43	22	31	-	0	0
<b>Osintxu</b>	892	517	%31,9	%19,3	285	230	181	130	33	19	13	18	33	17	60	-	1	1
<b>GUZTIRA</b>	12.445	12.734	%30,3	%18,6	3.871	5.664	2.013	2.134	982	949	512	1.021	509	512	782	-	22	13



### Orfeoiko eta Gaberoko kideek emanaldia egin zuten Leonen

Gabero abesbatza eta Bergarako Orfeoia Leonen izan ziren joan den zapatuan, apirilaren 16an. Hango Jose Castro Ovejero musika kontserbatorioan emanaldia egin zuten Bergarako abeslariak. Ikusleak gustura geratu ziren Orfeoia eta Gaberok eskainitako piezekin.

Emanaldiarekin ez ezik, bidaiarekin ere gozatu zuten gure kantariak. Gainera, hemen baino eguraldi hobea izan zuten, argazkian ikus daitekeenez. Goiko argazkian Gabero eta Orfeoiko kideak, Leongo katedralaren aurrean.

## LABUR

### San Joxepe erretiratuen elkarteak Iruñara joateko irteera antolatu du hilaren 28rako

San Joxepe erretiratuen elkarteak Iruñara irteera egingo dute hurrengo eguenean, apirilaren 28an. Iruñea ezagutzeko bisita gidatua egin ondoren, hango jatetxe baten bazkalduko dute. Izenematea erretiratuen egoitzan, 943 76 30 09 telefonoan.

### Loredi Salegiren hitzaldia martitzenean, hilaren 26an, Mariaren Lagundian

Mariaren Lagundia Ikastolak antolatutako hitzaldi sortaren barruan, Loredi Salegi gizarte langileak *Nerabea: eskola-familia harremana* izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 26an, Mariaren Lagundian, 18:00etan. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da hitzaldira joaten diren gurasoen seme-alabendako.

### Egonaldiak Nojan, Alzheimerra edo bestelako demenziak dituztenei zuzenduta

Alzheimer gaixotasuna edo bestelako demenziak dituzten pertsonendako *Oporraldien programa* aurkeztu dute Afagi elkarteak eta Diputazioak. Haien laguntzaileekin eta profesionalen laguntzaz, gaixoei atsedean hartzeko aukera izango dute Nojan, Kantabriar. Argibideak Udaleko Ongizate Zerbitzuan (943 77 91 65), edo Afagi elkartearen (943 29 71 18).

### 1963. urtean eta 1965ean jaiotako bergararren ospakizuna apirilaren 30ean

1963an jaiotako bergararrek afaria egingo dute hurrengo zapatuan, hilaren 30ean, Azpeitxi jatetxean. Izenematea Ariznoa tabernan egin daiteke.

1965ean jaiotako bergararrek ere afaria izango dute apirilaren 30ean, Zumelaga jatetxean. Izenematea ondoko tabernetan egin daiteke, apirilaren 23ra arte: Ariznoa, Fronton, Etxagi, *Popis* eta Pol-Pol. Argibideak: 629 56 29 25 (Karlós Etxaniz)

**PILOTA/** Muguruza bergararrak ezin izan zuen jokatu orkatilan mina hartuta dagoelako

# Dominguez-Zapirain, Bergara Hiriko finalerdietara

EDU MENDIBIL

Ander Dominguez donostiarrak eta Ruben Zapirain azkoitiarrak Bergara Hiria Txapelketa final erdiatarako txartela eskuratu zuten martitzenean. Dominguezek eta Zapirainek Muguruza-Mendizabal bikotea ordezkatu dute txapelketan. Muguruza lesionatuta dago.



Argazkian, Zapirain eta Dominguez martitzeneko partidua irabazi eta gero.

22 urtetik azpikoen mailan, Apezteak eta Diez de Ultzurrunek Goenaga eta Gorrotxategiri irabazi zieten, 22-12. Ondoren, esan bezala, Dominguez eta Zapirain erraz sailkatu ziren finalerdietarako, Aranzeta-Arrutiri 22-13 irabazita.

Dominguezek partidu bikaina egin zuen eta atzeko koadroetan ondo lagundu zion Zapirain bikotekideak. Finalerdietan Abad-Okiñena izango dituzte aurrez aurre, datorren maiatzaren 3an.

#### BESTE BI PARTIDU MARTITZENEAN

Hurrengo martitzenean, hilaren 26an, final-laurdenetako partidu hauek jokatu dira, 19:30ean: 22

*Finalerdietan Abad-Okiñena bikotea izango dute aurrean Dominguezek eta Zapirainek*

urtetik azpikoetan, Renobales-Iraola eta Elurbe-Beloki bikoteen artekoa; jarraian, Lopez Aldai eta Tejerok Beraluze-Apraiz bikotearen aurka jokatu dute, nagusien mailan. Igor Gutierrezek maiatzaren 2an jokatu du; Lasarekin batera, Errauzkin anaien aurka jokatu du bergararrak.

## Herritarrei zuzendutako futbol txapelketa Ipintzan, maiatzean hasita

E.M.

Maiatzaren bukaeran hasita, adin mugarik gabeko futbol txapelketa, beteroenen mailako futbol-7 txapelketa eta emakumeei zuzendutako futbol-7 txapelketa jokatu dira Ipintzan. Nesken kasuan hiru maila bereiztuko dituzte, eta 1989-1994 bitartean jaiotako neskek izango dute par. Izenematea maiatzaren 16ra arte izango da zabalik Ipintzako futbol zelaietan. Beteranoek maiatzaren 18rako aurkeztu beharko dute jokalarien zerrenda. Ondoren, izena ematen duten taldeetako ordezkariak bilera deituko dute antolatzaileek, maiatzaren 21ean, Ipintzan.



Ipintzako txapelketak erantzun bikaina jaso du azken urteotan.

## LABUR

### Gorla Alpinok eta Pol-Polek maiatzaren 1eko zubirako Pirinioetara irteera antolatu dute

Apirilaren 30etik maiatzaren 2ra bitartean Pirinioetara joateko irteera iragarri dute Gorla Alpinok eta Pol-Polek. Santa Orosia aldera joango dira mendizaleak. Izenematea Pol-Polen egin daiteke. Prezioa 120 eurokoa da. Argibideak 943 76 48 51 telefonoan.

### Ariznoako alebin mailako gimnastak bihar kiroldegian, Gipuzkoako Txapelketarako proban

Bihar, zapatua, gimnasia erritnikoko txapelketa jokatu da Labe-garietako kiroldegian, goiz eta arratsaldean. Gipuzkoako Txapelketarako klasifikatze saioak izango dira eta Ariznoako gimnastak banaka zein taldeka lehiatuko dira, alebin mailan. Ariznoako hamabi neskatilak hartuko dute parte biharko txapelketan.

### Futbolin txapelketa hilaren 29an Pol-Polen, Eaubonnerako txapelketara begira

Lamek antolatuta, futbolin txapelketa jokatu da Pol-Pol tabernan hurrengo egubakoitzean, hilaren 29an, 21:00etan. Izenematea doanekoa izango da eta irabazleak maiatzaren 5ean eta 6an Eaubonnen (Paristik gertu) jokatu den futbolin txapelketara joateko bidaia, egonaldia eta txapelketarako txartela eskuratuko du.

### Igeriketa ikastaroak izango dira Agorrosingo igerilekuan, Kirol Zerbitzuaren eskutik

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, igeriketa ikastaroak izango dira hurrengo asteotan Agorrosingo igerilekuan. 3 urtetik 14 urtera bitartekoendako hasiera eta hobekuntza mailako ikastaroak izango dira. Era berean, 14 urtetik gorakoendako hobekuntza mailako ikastaroak izango dira zapatuetan eta domeketan.

Izenematea egiteko edota edozein argibidetarako 943 77 91 67 telefono zenbakira jo dezakezue.

### Eskubaloitako partidu bat kiroldegian eta hiru futbol partidu Ipintzan aste bukaeran

Bergara KEko lehen senior mailako eskubaloitako taldeak ligako azken partidua jokatu du domekan, Gure Auzuneren aurka, 12:15ean.

Futbolari dagokionez, hiru partidu izango dira zapatuan Ipintzan: Bergara-Ordizia (infantil maila, 10:00etan); Bergara-Mariño (lehen infantil maila, 12:00etan) eta Bergara-Eibartarrak (bigarren gazte maila, 16:30ean).

## LABEGARAIETA

### PARTIDUAK

#### DOMEKAN, BARRUAN

10:30: Errotagain-Kalaveras . . . Antolaketa

16:00: Pirulotarrak-Cosa Nos. . . PDS

17:00: Agirrebeña-PDS..... . . Cosa Nostra


18:00: De Resaka-Fac. . . . . Pagomendi

19:00: Pagomendi-SDTNT . . . De Resaka

20:00: Canalejas-Mongatxurak.SDTNT

#### DOMEKAN, KANPOAN

16:00: All Blacks-Irube. . . . . Agirrebeña



## Ion Murgizu margoak


Margolanak orokorrean  
Margo dekoratiboa  
Margo industrialia

Esozia etorbidea 24, 2. behea  
SORALUZE  
943 75 13 24 / 652 777 030  
iion@euskalnet.net



## Irrintzi kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26



Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

## EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

MUSIKA/ Talde suediarrek *Kingwood* bere azken diskoa aurkeztuko du Bergaran

# Millencolin taldearen kontzertua gaur Jamen

EDU MENDIBIL

Suediako Millencolin taldearen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan. Hardcore melodikoan ibilbide luzea egin du Millencolinek. Gaurko emanaldia 20:00etan hasiko da eta suediarren aurretik Street Dogs taldeak joko du.

Hamar urte pasatxo egin ditu Millencolin taldeak, eta dagoeneko sei disko kaleratu dituzte. *Pennybrigde pioneers* izenburuko diskoarekin sekulako oihartzuna lortu zuten hardcore melodikoaren zaleen artean. Harrezkero, beste bi disko eman dituzte argitara: *Home from home* eta *Kingwood*, beraien azken lana.

Örebroko laukotearen azken lanak kritika onak jaso ditu adi-tuen eta euren jarraitzaileen aldetik. Pop eta rock klasikoaren eragina nabaria da hainbat kantutan. Suediarrek euren talde faboritoetako batzuk omendu dituzte *Kingwood* diskoan, hala nola Rancid, Weezer, Green Day edota Bad Religion.

Street Dogs izango da gaurko emanaldiko talde *teloneroa*. Sarrerak 25 eurotan salgai izango dira Jameko leihatilan. Ema-



Argazkian, Millencolin taldeko kideak. Gaur Jamen izango dira.

*Hardcore melodikoaren zaleen artean oihartzun handia duen taldea da Millencolin*

naldiaren hasiera 20:00etarako dago iragarrita.

**LAST RESORT ETA OSTIADA OI!! BIHAR** Bihar, zapatua, Last Resort, Ostiada Oi!! eta gonbidatutako beste talde batek joko dute Jam aretoan. Kontzertua 22:00etan hasiko da. Sarrerak salgai daude 14 eurotan. Leihatilan, berriz, 16 eurotan salduko dituzte bihar.

## LABUR

### Musika Astea agurtzeko azken emanaldiak aste bukaeran eta astelehenean

Musika Astea agurtzeko bi emanaldi izango dira aste bukaeran: bihar, zapatua, kantu ikasleek emanaldia egingo dute Sierbetako elizan, 20:00etan; domekan, Soraluze eta Bergarako gazteen bandek kontzertua emango dute Soraluze Plaza Zaharrean. Astelehenean, soka ikasleen emanaldia izango da Sierbetan, 18:30ean.

### Jukebox eta Stukas bihar eta Sei urte eta Nabari hurrengo zapatuan, gaztetxean

Bihar, zapatua, Jukebox eta Stukas taldeek emanaldia egingo dute Bergarako gaztetxean, 22:30ean. Arrasatekoak eta Soraluzeakoak dira Jukeboxeko kideak eta *We only wanna rock* lana aurkeztuko dute. Stukas taldea Bergarakoa da. Hurrengo zapatuan, hilaren 30ean, Sei urte eta Nabari izango dira gaztetxean, 22:30ean.

### Jardunek logotipo lehiaketa deitu du elkartearen 15. urteurrena ospatzeko

Elkartearen 15. urtemugan, logotipo lehiaketa deitu du Jardunek. Bergarako edonork har dezake parte eta bi maila bereiztuko dira: 12 urtetik beherakoak eta 12 urtetik gorakoak. Gaztetxoen arteko irabazleak jolasak jasoko ditu eta 12 urtetik gorako lehiaketa irabazten duenak, 60 euro. 15. urteurrena eta *Jardun* hitzak agertzea ezinbestekoa da. Lanak jasotzeko epea maiatzaren 3an amaituko da. Argibideak Errotalde jauregian, 943 76 08 19 telefonon.

### Pazkoetako dantza latindarren lehiaketarako izenematea maiatzaren 6ra arte zabalik

Pazkoetako zapatuan, maiatzaren 14an, dantza latindarren lehiaketa jokatu da Bergaran: *salsa, merengea, txa-txa-txa* eta *batxata* dantzatu behar dira. Bikote irabazleak 600 euroko saria jasoko du; bigarrenak 300 eurokoa eta hirugarrenak Zumelaga jate-txean afaria. Izenematea maiatzaren 6ra arte dago zabalik. Argibideak 943 76 91 58 telefono zenbakian.

## Eva Ramirezen argazki erakusketa kultura etxean

E.M.

Eva Ramirez andaluziarren argazki erakusketa ikusgai dago kultura etxean, apirilaren 26ra arte. Kamara digitalarekin ateratako irudi intimistak dira Ramirezek Bergarara ekarri dituenak.

Eva Ramirezek Eba Ramiré izenarekin sinatzen ditu bere lanak. Hamar argazki jarri ditu kultura etxeko erakustaretoan: "Etxebizitzatan ateratako irudiak dira, eguneroko bizimoduan parean ditugun baina oharkabeen pasa-

tzen zaizkigun elementuenak" dio egileak.

Ramirezek poesia eta argazkilaritza uztartzen ditu erakusketan. *Melalia* izenburuko poesia liburua kaleratu zuen iaz eta erakusketan hainbat poema erakusten ditu: "Gauza txikiak eta xumeak islatzea atsegin dut eta poema laburrak dira, Japoniako *haikuen* estilora", malagarraren hitzetan.

#### BERGARA HIRIA LEHIAKETA

Bestalde, Bergara Hiria argazki lehiaketa deitu du Pol-Pol argazki taldeak. Lanak jasotzeko epea

maiatzaren 4ra arte izango da zabalik eta ohikoa denez, zuri-beltezko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Kategoria bakoitzean, gehienez, lau argazki aurkez daitezke, eta derri-gorrezkoa da 30x40 cm-ko kartulinatan aurkeztea.

Kategoria bakoitzeko onenak 180 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak (150 euro) eta hirugarren sariak (120 euro) ere banatuko dituzte. Saridun guztiek Santi Arrietaren argitaratu gabeko zeramika lan bana jasoko dute garaikur moduan. Argibide gehiago 943 76 30 90 telefonon.



EBA RAMIRÉ

Er biahe ke nunka ezihtio, erakusketan dagoen argazkietako bat.

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

**Eraikuntza  
materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua  
Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

E, TXO!

**ESKORIATZAKO JAIETARAKO  
KARTEL LEHIAKETA**

Abian da 2005eko San Pedro jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Edozein pertsonak har dezake parte. Kartelak maiatzaren 20ko 14:00ak baino lehen udaletxera nahiz kultur etxera bidali behar dira. Kartelak 21x10 cm izan beharko ditu. Bertan ipini beharreko testua, berriz, hau da: 2005eko San Pedro jaiak Eskoriatza. Ekainak 28, 29 eta 30, Uztaialak 1. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

**UDAKO IKASTAROETAKO IZEN  
EMATEA AURKI ZABALIK**

Euskal Herriko Unibertsitateak Donostiako Udako Ikastaroen programa argitaratu du. Aurten ere ikastaroak, mintegiak, nazioarteko elkarguneak, eskolak, jardunaldi profesionalak, tailerrak eta kongresuak izango dira. Ekainaren azken astetik iraileko bigarren astera arte izango dira hauek guztiak. Matrikula maiatzaren 2tik aurrera egin beharko da plazak bete artean. Informazioa helbide honetan aurki daiteke: [www.sc.ehu.es](http://www.sc.ehu.es).

**KATALUNIAKO EDO EUSKAL  
KULTURA IKERTZEKO BEKA**

Eusko Ikaskuntzak eta Institut D'Estudis Catalans-ek sei hilabeterako 3.600 euroko beka emango dute. Azken 10 urteetan unibertsitatean edo goi mailako irakaskuntza zentroetan lizentziatu edo graduatu direnendako izango da beka hau. Kataluniako kulturaren zein euskal kulturaren alderdi jakin baten interesa duten ikertzaileei zuzenduta dago. Izena emateko azken eguna apirilaren 30a da. Informazioa honako helbidean aurki daiteke: [www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org).

GUREGAIK/ TXATAK

**Txat bidezko solasaldi  
luzeak euskaraz**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Internetek gazteen artean daukan aplikazio arrakastatsuenetako bat, solasaldi aretoa edo txat delakoa da. Internet zaleek hainbat erabiltzaileekin unean bertan idatziz jardun dezakete.**

Internet sarearen bidez komunikatzeko ditugun beste bideen aurrean (posta elektronikoa, foroak, posta-zerrendak) txatak erabiltzaile askorekin aldi berean eta batera komunikatzeko aukera ematen du.

Edozein txokotako jendearekin harremanetan jartzeko, zaletasunak partekatze edota artxi-boak elkarrekin trukatzeko bidea


den heinean, txata biziki arrakastatsu bilakatu da.

Dena den, erabiltzaileen egin-kizun nagusia adiskide berriak egitea edo, are zuzenago, ligatzea da eta, idatzizko harreman hauen ondorioz egiatzko topaketak gertatzen dira.

**EUSKARAZ**

Edozeinekin hitz egin daiteke eta badago euskaldunekin txat bidez jarduteko aukera ere.

Euskaraz txateatzeko honako helbideetara jo dezakete zaleek: [www.kaixo.com/chat](http://www.kaixo.com/chat); [www.euskal.com/chat](http://www.euskal.com/chat); [www.euskal-erria.org/solasgunea](http://www.euskal-erria.org/solasgunea); [www.oihutegia.com](http://www.oihutegia.com); eta euskara ikasleendako txata honako helbidean dago: [servicios.eje.es/chat/habe](http://servicios.eje.es/chat/habe).



Hainbat txokotako euskaldunekin aldi berean hitz egin daiteke txat bidez.

LOTSABARIK/ Aitor Zabala

**“Nire akatsa da haserretzen naizenean  
entzungor egiten dudala”**

I.A.

**Mutil okupatua da Aitor; hala ere, eskolatik irten bezain pronto tartetxo bat egin du gure elkarrizketari erantzuteko. Ez omen ditu gustuko zirrikadak eta lasai egin dizkioguz galderak.**

• **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**

Herria konpontzeko lanak egingo nituzke baina ez denak batera, orain egiten diharduten moduan.

• **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**

Ez dut karpetarik erabiltzen; gauzak motxilan gordetzen ditut.

• **Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Txutxu-mutxu programak gorrotagarriak iruditzen zaizkit. Saio gustukoena, berriz, *Vaya Semanita* da niretzat.

• **Pertsonaia higuinagarriena? Eta gustukoena?**

Politikoak ez ditut gustuko; *Vaya Semanitako* Joxepo, berriz, oso xelebrea iruditzen zait.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Besteek zirikatzeak amorrubizian jartzen nau.

• **Zer estimatzen duzu besteengan?**

Jatorrak izatea.

• **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Osasunari.

• **Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Bertutea jatorra naizela. Akatsa, aldiz, haserretzen naizenean entzungor egiten dudala.

• **Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Neskekin hitz eginez. Hala ere, gutxi ligatzen dugu.

• **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**


Jatorra izanda konformatuko nintzateke, eta polita balitz hobe.

• **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**

Japonera Ibon lagunarekin. Bertan *Metal Gear* jokoak arrakasta handia du eta biok oso gustuko dugu.

• **Eforkizunerako amets bat?**

Loteria tokatzea.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBH 3. maila • ZALETASUNAK: Futbol partiduak ikústea • LIBURU BAT: *El señor de los anillos* • FILM BAT: *El señor de los anillos* • MUSIKA TALDEA: *Toy Dolls* • KIROL TALDEA: Real

**ETXE BERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65**KONDE  
PANADEROKUA**Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA**POL-POL  
Taberna**

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



## Felix Barrocal

KALE GARBITZAILEA

Hamahiru urte daramatza Felixek kale garbitzaile lanetan. Oso gustuko du bere lana eta ez luke ezergatik aldatuko. Lanetik kanpora ere, etxean, etxeko lan ia guztiak egiten ditu. Oso kirolzalea da Felix, baina, ez du astirik izaten kirola egiteko.

**Kale garbitzaile izatea azkena da batzuekiko.**

Horiek aspaldiko kontuak dira; gaur egun, jendeak beste era batera ikusten du lanbide hau.

**Kalea garbitzerakoan topatu duzun gauzarik bitxiena?**

Denetik topatzen dugu; xiringak, kondoiak, hildako arratoiak, katuak...

**Bergararrok oso zikinak gara?**

Denetik dago; badago beti kezuka dabilen jendea eta gero, dena lurrera botatzen duena. Dena dela, eskerrak ematen dizkigun eta gure lana estimatzen duen jendea ere badago.

**Etxean ere zuk pasatzen duzu erratza?**

Bai; janaria prestatu, semeaz arduratu eta etxeko gainerako lan guztiak ere egiten ditut, lixatzea izan ezik, hori emazteak egiten du beti.

**Zein botako zenuke zakarretara?**

On itxura eman eta atzetik euren interesean bakarrik pentsatzen duen jendea; politikariak, esaterako.

**Zure lanean zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Ia dena; ez da lan monotonoa, egunero lan ezberdinak egitea egokitzen zaigu: kaleak garbitu, estoldak garbitu...

**Eta gutxien?**

Goizean goiz jaiki beharra; goizeko bostak eta laurdenean jaikitzen naiz, eta gero eta gehiago kostatzen zait, gainera. Adinagatik izango da.

**Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?**

Oso kirolzalea naiz, denbora larregi ez dudan arren; areto futbola, frontenisa, bizikletan ibiltzea... Denetik egitea gustatzen zait.

**Nora joango zinateke oportetara?**

Karibe aldera.

**Liburu bat?**

Egunkariak bakarrik irakurtzen ditut.

**Film bat?**

*El sexto sentido.*

**Bukatzeko, amets bat?**

Osasuna edukitzea eta nire familiarekin zoriontsu bizi izatea.

AINZANE IRIZAR

## NIREBIDAIAHURA/ Jaio Manzanedo

ESLOVENIA / 2004ko abuztuan


**K**oadrilako hiru lagunekin egon nintzen Eslovenian, iazko abuztuan. Ikasketa bidaian Croacian egon ginen, baina Eslovenian ere sartu ginen; oroitzen politak neuzkan. Gainera, lagun bat egonda zegoen eta berak ere gomendatu zigun Eslovenia bisitatzea.

Ljubljana hiriburura iritsi ginen hegazkinez, eta han automobil bat errentan hartu genuen. Hiriburua oso ederra da, Europa erdialdeko hirien estilokoa. Ez da oso handia, Gasteizen antzekoa izango da.

Hiriburutik Bled herrira abiatu ginen. Oso herri polita da; Esloveniako postaletako tipikoa. Laku baten ertzean dago herri hori, eta lakuaren erdian irla txiki bat dago.

Bledetik Triglav parke naturalera joan ginen. Hantxe dago Esloveniako mendirik altuena, Triglav tontorra, hain zuzen ere. 2.864 metro ditu.

Eslovenia oso herrialde menditsua eta berdea da, ederra, benetan. Eta parke natural hori, Triglav-ekoa, are eta ederragoa da. Gu ez ginen mendian ibiltzera joan, turismoa egitera, baizik; baina, mendizale asko joaten da. Ingurune hura karstikoa da; *karst* hitza, gainera, Esloveniatik datorkigu. Lurralde karstikoa izanik, kobazulo ugari dago eta paisaiak ikusgarriak dira. Herrialde osoa da men-



*“Natura bereziki ondo zainduta dago; atentzioa eman zigun horrek”*

*“Triglav parke naturalean egon ginen; hantxe dago Esloveniako mendirik altuena”*

ditsua, berdea eta menditsua, nahiz eta hemen baino ingurune zabalagoak dauden; haranak ez dira hemen bezain estuak. Nolabait, Suitzaren antza hartzen nion nik.

Triglav-etik Maribor hirira joan ginen; Austria eta Hungariako mugatik gertu dago. Hiri hau ere Europa erdialdeko hirien estilokoa da. Austriako hirien ikutua dauka. Zorte txarra izan genuen, baina, Mariborren, oso eguraldi txarra egin zigun eta pena izan zen. Hala ere, oro har, eguraldi oso atsegina egin zigun Eslovenian pasatu genituen hamabost egunetan. Eguraldi eguzkitsua izan genuen, baina ez genuen batererik berorik pasatu.

Atentzioa eman zigun ikusteak zelako ondo zainduta zegoen guztia, natura alegia. Basoak, zelaia, mendiak... postaletakoak bezalako irudiak daude. Bereziki ondo zainduta dago guztia.

Bidaia gomendagarria da, benetan. Pentsa, aurrean gure lagun batzuk doaz, gure kontuak

entzunda animatu egin direlako. Nahiko erraza da logelak errentan hartzea edo hotelak topatzea. Gainera, ez da batere garestia; ez da merkea, baina, guretako, nahiko ondo dago.

AINZANE IRIZAR



Jaio eta bere lagunak, Bled-eko lakuko irlan.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



**margolan**  
m a r g o a k

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidriren margolanak
- ▶ Imitazioak

Sagasti auzoa Z<sup>a</sup> 5-3D  
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955  
687 570 777

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

Zein da Uberako baserri honen izena?

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NOEMI AREITIOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Noemi! Galderaren erantzun zuzena: **Basalgon**.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileron artean!

BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Scottex komuneko papera

12 rollo + 4 doan

**2,90€**

483 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Bergara KEko txirrindulari taldea

**B**ergara KEko txirrindulari taldea 1954. urtean sortu zuten. Besteak beste, ondoren profesional mailan jardun zuen Eusebio Velez arabarra Bergarako txirrindulari taldean aritu zen.

Bergarako taldeak, hala ere, ez zuen ibilbide luzea izan: txirrindulari taldea mantentzea garestia zela-eta, Bergara KEk taldea babesteari laga zion 1957an. 1961ean Bergara Txirrindulari Elkartea sortu zen eta 1994tik hona Lokatzak dauka herriko txirrindularitzaren ardura.

Ondoko argazkia 1955. urtekoa da eta honako hauek dira BKEko maillotarekin azaltzen diren txirrindulariak: Julio eta Inazio Isazelaia, Txomin Depaz, Pedro Arietaleanizbeaskoa *Uritxa* eta Dimas Larrañaga.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: Bergara KE.

FARMAZIEN TXANDA

- EGUBAKOITZA, 22**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- ZAPATUA, 23**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- DOMEKA, 24**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 25**  
CAMACHO. Oxirondo 4. . . 943 76 11 74
- MARTITZENA, 26**  
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 27**  
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05
- EGUENA, 28**  
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa. . 943 76 62 46
- Ertzaintza . . . . . 943 53 47 20
- Osasun etxea . . . . . 943 76 24 40
- Asepeyo . . . . . 943 76 16 43
- Pakea . . . . . 943 76 13 49
- Angiozarko medikua . . . . 943 78 90 27
- Antzuolako medikua . . . . 943 76 62 23
- Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak. . . . 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak . . . . . 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea . . . . 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea . . . . 943 76 62 46
- Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32
- Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51
- Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58
- Liburutegia . . . . . 943 77 91 62
- Kirroldegia . . . . . 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza. . . . . 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia . . . . . 943 76 14 92
- Erregistroa . . . . . 943 76 13 15
- Jardun . . . . . 943 76 36 61
- Postetxea . . . . . 943 76 26 85
- Bedelkar . . . . . 943 76 04 68
- Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia . . . . . 943 76 44 53
- Bergarako notariotza. . . . . 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,  
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,  
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20  
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorluzue aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraleta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraleta/Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,  
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50  
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),  
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta  
20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraleta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.



## ATREBENTZIAEZPADA/ Bihar liburuaren eguna da. Baduzu irakurtzeko zaletasunik?



JONE ARROITAJAUREGI



JOSE MARI GISASOLA




MARIA TERESA MACIAS



JOKIN ETXANIZ



PILAR SUINAGA



JUAN LUIS ARREGI

Bai. Orain seme-alabekin ez daukat astirik baina udan irakurtzen dut batez ere. Denetariko liburuak irakurtzen ditut; eleberririk batetik eta orain baita umeen heziketaren gaineko liburuak ere.

Zaletasuna bai, baina ez dut askorik irakurtzen. Egunkaria egunero, baina liburuak askotan hasi eta ez ditut amaitzen. Gehienetan euskarazko liburuak irakurtzen ditut, azkena, *Lagun izoztua*.

Bai, Circulo de Lectoresko bazkidea naiz eta niretzat zein alabarentzat erosten ditut liburuak. Nik batik batik jostaketa eta brikolajeko liburuak hartzen ditut, eta noizean behin batik eleberririk ere.

Bai; nahikoa irakurtzen dut. Historiako ikasketak egin nituen eta historia eleberririk irakurtzen ditut batez ere. Azkena irakurri nuen liburua *El Berberisco* izan zen, baina egilea ez dut gogoan.

Bai, handia gainera. Liburutegiko bazkidea naiz eta bertatik hartzen ditut liburuak. Danielle Steele idazlearen liburuak asko gustatzen zaizkit. Liburu asko eta onak daude, lehen ez zegoen hainbeste aukera.

Ez, egunero egunkaria irakurtzen dut, baina liburuak bat edo beste bakarrik. Sekula ez dut irakurtzeko zaletasun berezirik. Pentsatzen jarrita ez daukat gogoan azken liburua noiz irakurri nuen.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK GELTOKIRAKO PASOA** Irakurle batek deitu digu autobus geltokirako pasoa nahiko arriskutsu dagoela salatuz. Atzeko partetik joanez gero ez dago arazorik, baina jende askok Ibargarain errepidea zeharkatzeko ohitura hartu du. Zebra-bidea geltokia baina aurrerago dagoenez, arazoa konpontzeko eskatu du gure irakurleak. /E.M.

## BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Metia eñ.  
—Bedarrondua metatzen diardu Julianek, eurixa dotar da.

JON IRAEGI

## BESTEKE SANA

“Ikaragarri aldatu da Bergara ni mutiko koskorra nintzenetik hona. Gogoratzen dut oraindik zenbat jolas egiten genuen auzoan, Ozaetan. Urta-ro bakoitzean jolas ezberdinak genituen. Sasoi berria heldu ahala aldatu egiten genituen jolasak: mendian, auzoan bertan, errekan... bakarrik ez, igeri egiten ere Ozaetako errekan ikasi nuen umetan. Bestalde, asko gustatu izan zait beti ikastea eta gustura joaten nintzen eskolara, nazionalak. Gainera, oso irakasle onak izan nituen. Espainiako ibaiak ez nituen kantuan ikasi, baina duela urte batzuk Japonian izan nintzen eta hango irla batzuen izenak gogoratzen nituen mutikotan eskolan ikasita”  
**JABIER RETEGI / Eusko Ikaskuntzako presidentea 'Asteleheneko Goienkaria' /05-04-18**

## HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 19	<b>3 °C</b>		
MAXIMOA Eguaztena, 13	<b>16 °C</b>		
ASTEKO EURIA (l/m <sup>2</sup> )	<b>111 L</b>		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	16 °C	3 °C	— l/m <sup>2</sup>
Eguena, 14	15 °C	6 °C	14,4 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 15	12 °C	6 °C	42,8 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 16	9 °C	5 °C	21,4 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 17	12 °C	5 °C	9,3 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 18	15 °C	9 °C	9,7 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 19	15 °C	3 °C	13,3 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

## BERAIEKDIÑOĖ/ Aitziber Azkondo



*'La casa de tu vida'*

**E**ntzungo zenuten pasa den astean, nola Madrilgo gobernuko Etxebizitza Ministroak 25-30 metro koadroko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea eta merkaturatzea aurreikusi duen. Trujillok adierazi duenez, gazteek etxebizitzak lortzeko dituzten arazoei aurre egiten laguntzea da eta ez atzerapen bat. Zalantzan jarriko nuke nik hori. Horrenbeste metro koadrota bizi ostean, ondorio psikologikoak igarriko genituzkeela aurreratu du batek baino gehiagok dagoeneko. Faltza zitzaiguna, etxe berria alokatu eta gainera zoratu? Gero eta etxe txikiagoak egiten dituzte. Lekua aprobetxatu behar da, ahalik eta etekin handiena atera lurrari, prezioak igo eta saldu. Baina ausartu zaitez 30 metro koadroko pisu batean!  
Telebistan, etxeen egitura *fashion total* iruditzen zitzaidan, bai. Minimalismoa, sukaldea, egongela koloreduna, komuna?... ez nuen komunikatu ikusi irudietan!

Imajinatu asteburu batean lagunak gonbidatzea otu zaizula. Nola egin? Eta Gabonetan? Hiru baino gehiago elkartzea ezinezkoa da! Nola justifikatu koadrilako gutxi batzuk gonbidatzea? Kitto!

Europa iparraldean egitura honek arrakasta handia duela dio ministroak, gazteei etxetik alde egiteko aukera ematen diela prezio eskuragarritan alokatzen direlako.

**“Zergatik ez zarete lurraren prezioa eta esplotazioaren arazoa sustraitik konpontzen hasten?”**

Bat: azken datuen arabera 30 metro koadroko etxebizitza eraikitzea 90 metrokoa egitea baino %37,5 garestiagoa da.

Bi: zergatik ez zarete behinogoz lurraren prezioa eta esplotazioaren arazoak sustraitik konpontzen hasten?

Hiru: Zer gertatzen da hutsik dauden etxebizitzekin?

Eta lau: Nork aterako du errentagarritasun handiena, etxeak alokatuko dituzten gazteek edo kontratistek?

Ea eratzear dagoen gobernu berriak zer eskaintzen digun eta benetako arazoez arduratzen hasten den.

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Aintzane Irizar  
Iratzi Agirreazaldegi  
Oihana Elortza  
**MAKETAZIOA**  
Maitena Arana

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobezibar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
8.680 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a / 240. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Junior mailako Gipuzkoako Klasikoa bihar, zapatua, jokatu da herrian

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako Klasikoa Antzuolan jokatzera erabaki du Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak, Aia Peñak halaxe eskatuta. Kontua da, Uzarragako igoerak 30 urte betetzen dituela aurten, eta hori ospatzeko lasterketa berezia antolatu nahi zutela.

Bihar, zapatua, 15:00etan hasiko da lasterketa, Herriko Plazan. Handik Bergara aldera abiatuko dira eta Oñatira ondoren; bi aldiz egingo dute joan-etorri hori. Ondoren, Deskarga mendatea igo eta Urretxutik eta Legazpitik igaro ondoren, Oñatira joango dira; handik, berriz, Uzarragako helmugara. Guztira, 99,5 kilometro izango ditu lasterketak; 17:30 aldera bukatuko da, Uzarragan.

Espainiako Estatuko eta Ipar Euskal Herriko 155 txirrindularik parte hartuko du Klasikoan. Batetik, estatuko hainbat elkarre autonomotako selekzioak etorriko dira; bestetik, Ipar Euskal Herriko bi selekzio. Gipuzkoako taldeek ere parte hartuko dute; tartean, Gurutz Larrea antzuolarraren Sumofic taldeak.



Joseba Lezeta Aia Peñako kidea, Jose Angel Zabalo alkatea eta Federazioko Arrieta eta Juarez, aurkezpenean.

### ARGAZKI ERAKUSKETA

Martitzenean egin zuten lasterketaren aurkezpena, Olanen; hantxe izan ziren federazioko ordezkariak ere. Bide batez, antolatu duten argazki erakusketa

aurkeztu zuten. Erakusketa horretan Uzarragako igoeraren 30 urte hauetako argazkiak ikusteko aukera izango dugu. Zapatuan egun osoan egongo da zabalik erakusketa hori. Luis Mari Etxe-

berria oñatiar zaleak ateratakoak dira argazkiok eta besteak beste honako txirrindulariak agertzen dira: Unai Osa, Joseba Albi-zu, Iñigo Roldan, Xabier Lazpiur eta Jokin Mujika.

## HERRITARREN HITZA / Mikel Larrea • Udaleko langilea

### Alkatearen gestioa

Esaten dute isiltzen denak ontzat emateh duela adierazten den hura. Baina, askotan, ez da nahikoa izaten isiltasuna, eta horregatik Antzuolako alkatearen gestioaren alde agertu nahi dut artikulu honetan.

Egia da antzuolar askok ezin izan zuela Gertu Gae herri plataformak aurkeztutako alkategaia bozkatu, baina Jose Angel Zabalo zuzentzen duen udalbatzar honek, beste edozein alderdiri bezala parte hartzen uzten die plataformako kideei Udaleko politikagintzan. Beste edozein zinegotziri moduan, bileretarako deialdia egiten zaie, batzorde informatiboetako

partaide dira eta puntualki jasotzen dituzte beraien etxeetan Udaleko bileregi dagozkien aktak.

Baten batek azaldu beharko dit, kalean batzuk saldu nahi duten *okultismoa* zertan datzan, zeren nik ez dut ezagutu hau baino udalbatzar gardenagorik.

Gaur egungo komunikabideek etxeko sukalderraino ekartzen digute herriko informazio guztia, eta udaletxean dauden proiektuak



**"Nik ez dut ezagutu hau baino udalbatzar gardenagorik"**

aski ezagunak zaizkigu, beraz, ez dut ulertzen zer den gardentasun edo transparentzia falta hori.

Erreka bideratzeko proiektua edota Beheko Auzoko garapen urbanistikoaren proiektua, nahikoa eztabaidatu izan direla uste dut Hirigintza Batzordean, eta herritarrak

ongi informatu izan dira kaltetuekin egin diren bilertan eta antolatu diren erakusketen bitartez.

Noski, 543 sinadura kontuan hartzekoak dira, aurreko udal hauteskundeetan izandako 438 boto baliogabeak kontuan hartzen diren bezala. Baina uste dut zilegitasun osoz hartu behar direla Zabaloren alde emandako 615 botoak ere; baita PSE-EEren 146 botoak ere, alderdi honen ordezkariak Udalaren proiektuen alde azaldu baitira.

Proiektu guztiak eztabaidatu egin behar dira, ahalik eta adostasun handienak aurkitu, eta gero bozkatu. Batzuetan gustukoa izango dugu erabakia eta bestetan ez, baina gehiengoaren nahia errespetatzen jakin behar dugu.

## LABUR

### Patxiko Txerrenen aurkezpena eta ipuin kontalaria

Bihar, zapatua, bi ekitaldi izango ditugu Udal Liburutegian. Batetik, Gorringo taldeko Egoitz Lasa ipuin kontalariaren saioa izango dugu, 18:30ean. Saio hori bukatzen denean, berriz, Patxiko Txerren ipuin sariketan aukeratuak ipuinekin osatu duten liburua aurkeztuko dute. Herri Ikastetxeko lehenengo mailatik seigarrenera bitarteko umeek parte hartu dute.

### Kaxetako iturria garbitzera, Arrolarekin

Arrola mendizale elkartek irteera berezia antolatu du oraingo honetan: Kaxetako iturria garbitzera joateko irteera.

Domekan, hilak 24, izango da hori; parte hartu nahi dutenak 09:30ean plazan elkartuko dira eta handik abiatuko dira Kaxetara. Hamarretakoa ere egingo dute.

Urtero egiten dute mendiko garbiketako Arrolakoek.

## KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Apirilak 23

12:00: Antzuola-Gure Txokoa (Gazteak)

18:00: Antzuola-Zestoa (Erregionalak)

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Urki 4 Antzuola 0 (Erreg.)

Eibartarrak 0 Antzuola 1 (Gazteak)

Antzuola 10 Soraluze 0 (Kadeteak)

Antzuola 1 Arizmendi 1 (Neskek)

Ordizia 1 Antzuola 1 (Infantilak)

#### PILOTA

Udaberri Saria

Olaide-Tartaloetxe (eskuz kad.)... 22-9

Deba Arroko txapelketa

Olaide-Arrasate (eskuz kad.)... 22-4

Olaide-Arrasate (eskuz nag.)... 13-22

ELKARRIZKETA

ANDONI AZKARATE/ERRETIRATUEN ELKARTEKO PRESIDENTE BERRIA

“Eguneko zentroa lortzea da gure erronka nagusia”

A.I.  
Apirilaren 2an egin zuen batzar orokorra erretiratuen elkarteak. Hantxe, besteak beste, batzorde berria aukeratu zuten eta geroa presidente berria ere aukeratu dute, Andoni Azkarate, hain zuzen ere.

Noiztik diharduzu erretiratuen elkarteko batzordean?

Bi urte egin ditut batzordean; Aşensio Azkarate izan da lehendakaria denbora horretan, eta ni, berriz, lehendakariordea.

Orain, baina, presidente izendatu zaituzte eta ardura handiago hartu duzu.

Bai, noski; baina, lanerako gogoz gaude eta obligazioa ere badaukagu horretarako. Izan ere, lan hori norbaitek egin behar du eta oraingoan niri egokitu zait. Salvador Olabarria da idazkaria eta hark asko lagunduko dit.

Elkarte dinamikoa da zuena; adibidez, irteera mordoa antolatzen duzue.

Hala da, bai; baina, erretiratuen elkarte ez da bakarrik irteerak, bazkariak edo hitzaldiak antolatzen dituen elkarte bat, hori baino askoz gehiago da. Alor askotan dihardugu lanean.

Zertan diharduzue, bada?

Adibidez, erretiratu talde handi bat dago Bergarako Mizpialde egoitzara joaten dena hango jendeari bisita egitera.

Bestalde, ibarreko elkarte guztiok elkartu gara garraio publi-

koaren arazoa dela eta. Jende nagusiak eta gaixoeak, batez ere, arazo handia dugu. Debagoienean, oso eskasa da garraio publikoaren egoera eta lanean dihardugu ia denon artean zerbait lortzen dugun. Gainera, Gipuzkoa osoan, erretiratuek deskontuak dituzte garraioetan, debagoien-darrok izan ezik.

Ze beste erronka duzue?

Eguneko zentroa jartzea da gure erronka nagusienetakoa. Herri asko daude Antzuola baino txikiagoak, eguneko zentroa dutenak. Proiektua badauka Udalak, baina badirudi kontu hori luzerako doala. Diputazioa eguneko zentroetarako laguntasunak ematen dabil eta hori orain aprobetxatu behar dugula uste dugu. Horrez gain, zaintzapeko etxebizitzak ere bultzatu nahi ditugu. Erretiratuon lokal hobeak ere lortu nahi dugu, noski, baina eguneko zentroari eta etxebizitzari ematen diegu lehentasuna.



“Garraio publikoarena arazo handia da Debagoienean, guretako, batez ere”



Fischer zirkoa etorri zaigu herrira

Astlehenean etorri ziren Cirque Fischer-ekoak, eta eskolako jolastokian jarri zuten karpa. Emanaldi bakarra egin dute, martitzenean. Herriko ume gehienak egon ziren hantxe. Ahuntzak, ahateak, oiloak eta txakurrak ikusteko aukera izan zuten; baita pailazoak eta orekariak ere. Eskaintzen zuenerako oso garestia iruditu zitzaizen guraso gehienei. /A.I.

HAUTESKUNDEAK

EAJ-EA garaile, baina, 167 boto eta bederatzi puntu galduta

A.I.  
Aurreko domekako hauteskundeetan, EAJ-EA koalizioak lortu zituen boto gehien Antzuolan; hala ere, 2001eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako emaitzekin alderatuta, boto asko galdu ditu herrian koalizio horrek, 167, hain zuzen ere. 2001ean, botoen %50,8 lortu zuen eta oraingoan, berriz, %41,2.

**EHAK INDARTSU**  
Beste datu azpimarragarri bat EHAK alderdiaren emaitza da; boto gehien jaso duen bigarren alderdia izan da gurean, 430 botoekin; boto guztien %32,4 lortu ditu. Orain dela lau urteko EHren

	2001-05-13		2005-04-17		
	KOPURUA	%	KOPURUA	%	
ERROLDA	1.613		ERROLDA	1.710	
EAJ-EA	713	%50,8	EAJ-EA	546	%41,2
EH	388	%27,6	EHAK	430	%32,4
PSE-EE	142	%10,1	PSE-EE	162	%12,2
PP	99	%7	PP	52	%3,9
ARALAR	—	—	ARALAR	75	%5,6
IU-EB	46	%3,2	IU-EB	47	%3,5
BESTEAK	3	%0,2	BESTEAK	2	%0,1
ZURIAK	9	%0,6	ZURIAK	8	%0,6
BALIOGABEAK	2	%0,1	BALIOGABEAK	2	%0,1

datuekin alderatuta, boto asko irabazi ditu, 42, hain justu. PPren beherakada eta PSE-EEren gorakada ere aipatzekoak dira; PPK 47 boto galdu ditu. PSE-EEk, berriz, 20 irabazi ditu eta momentu honetan hirugarren indarra da Antzuolan.

**Tomas Gezalaga**

Apainketarako eta industriarako pinturak  
Paper margotuak  
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatuta eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**Tomas Gezalaga**

Zoruen kutxilatuta eta bernizatzea

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**LEKY-BERRI MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko apirilaren XXa / 223. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Udalaren eta Diputazioaren akordioa autobusak finantzatzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak akordioa sinatu du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin autobus zerbitzu berezia finantzatzeko. Akordioa ikasturtea amaitu bitartekoa da; ondoren, ekainean erabakiko dute jarraitu ala autobus zerbitzua bertan behera laga.

Irailtik dago martxan autobus zerbitzu berezia. Debagoienean egiten ari diren mugikortasun ikerketaren baitan probarako ipini zuten.

Autobus zerbitzuaren kostua 23.707 eurokoa. Horietatik %40a (8.093 euro) Udalak ordaintzen ditu. Deba den, berak jasotzen du autobus txartelen salmentatik ateratako dirua.

Orain akordioa sinatu du Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta honen bitartez autobus zerbitzu berezi honen %60a finantzatu du.

Akordioa ikasturtea amaitu bitartekoa da; ekainera artekoa. Orduan gaia berriz aztertuko dute eta erabakiko da autobus zerbitzu berezi honekin aurrera jarraitu ala bertan behera laga.



Elgetatik Bergara eta Arrasatera bitarteko ibilbidea egiten dute autobusek.

### ERABILTZAILEREN KOPURUA GORA

Hazienda batzordeak bultzatuta garraio publikoaren erabilera alderdi kanpaina egin zuten eta badirudi eragina izan duela.

Urtarrilean 234 bidaiarik erabili zuten autobusa; otsailean 379 lagunek eta martxoan 375ek.

Bestalde, Udaletik jakinarazi digute Mankomunitatea ibarre-

ko taxi zerbitzuen gaineko akordioa gertatzen ari dela, eta aztertuko dutela gaia. Izan ere, orain ez dago taxi zerbitzua eskaintzen duen ibilgailurik herrian.

## HERRITARREN HITZA / Maria Elena Eztenaga • Liburuzaina

### Apirilak 23, denok liburu bat

Goienkariarekin kolaboratzaile bezala dudana harremana betetzeko gaia oso ondo datorrit: apirilak 23, liburuaren eguna.

Liburuaren eguna edo irakurleen eguna? Horrela deituko nioke, liburuak, berak bakarrik, ezer gutxi egin dezake eta, ez badugu zabaldu, irakurri eta gozaten bere testu edo mamiarekin.

Tsunami batek zeharo hondatu du Hego Asia; Aita Santua hil da; Euskal Herriko hainbat pertsonari hauteskundeetan aurkeztea debekatu egin diete; denak oraingo albisteak dira, ahoz aho dabilzkitunak, baina egunak eta urteak igarotzean

nahastu eta desagertu egiten zaizkigu gure oroimenetik, eta liburuengatik ez balitz guztiz galduko liriteke, historian zehar hainbat gertaera galdu diren bezala.

Baina liburuak ez dira historia gorde edo babesteko bakanrik, ezta heziketa, bizibidea edo lanpostua lortzeko ere. Liburuak pertsonon aisialdia betetzeko aukera paregabea dira.

Liburu batek lehenengo lerrotik azkenera arte erakarri,



**"Liburu batek erakartzea lortzen badu ez dago gauza hoberik"**

Da Vinci, bere inguruan hainbeste kritika eta eztabaida sortu duen liburu. Nolako izango

edo *engantxatzea* lortzen badu, nire ustetan behintzat, ez dago gauza hoberik.

Era guztietako gaiak dituzu aukeran: poesia, saiakera, biografia, abenturak eta azken boladan puri-purian daudenak: *Haizearen geriza*, *Azkeneko katoia*, *Hautsi da katea*, *La ecuacion Dante*, *Angeles y demonios*, eta nola ez *El Código*

da? Vaticanoko arduradun Bertonek aholkatu du ez irakurtzea; erabat aurkakoa lortu du: aspaldian gehien saldu den liburu da, *best-seller* bihurtuz.

Azkeneko utzi dut aipamen berezia merezi duen liburu: *Don Quijote de la Mancha*. Laugarren mendeurrena betetzen dela eta hainbat ospakizun (mahainguruak, antzerkiak, hitzaldiak...) egiten ari gara. Ez dira asko izango osorik irakurri dutenak, baina ziur nago denok dakigula bere berri: *En un lugar de la Mancha...* Jarraipena? Etxean ez baduzue zatozte liburutegira; gutxienez lau edizio ezberdin ditugu zuen zain.

## LABUR

### Skate ikastaroa maiatzaren 7ra atzeratu dute

Joan zen asteburuan izan zen Espaloiak antolatutako skate ikastaroaren lehen saioa. Hurrengo zapatu honetan izango zela esan bagenizuen ere, antolatzaileek jakinarazi digute eguna atzeratu dutela. Beraz, bigarren saioa maiatzaren 7an izango da. Lehenengo egunean zortzi lagunek hartu zuten parte, baina norbaitek nahi izanez gero oraindik joateko aukera du. Ikasle berriek sei euro ordaindu behar dituzte; Espaloiak bazkide badira hiru euro.

### Gaur arratsaldean liburuak izango dira plazan

Bihar, zapatua, liburuaren eguna dela eta liburutegiko hainbat lan kalera aterako dituzte gaur, barikua, arratsaldean. Liburutegira azkenaldian iritsi diren lan berriak egongo dira jendeak ikusi ditzan. Bestalde, zaharkituta daudelako erretiratu dituzten hainbat liburu jendeari emango dizkiote opari. Liburutegiko ordutegian egongo dira plazan liburuak, 20:00ak arte, hain zuzen ere. Plazara gerturatzeko gonbita egin du liburuzainak.

### Magia mostrarako bonoak salgai 30 euroren truke

Maiatzaren 13tik 15era bitartean magia mostra izango da Espaloia aretoan. Nahituenak hiru egunetarako bono eskuratzeko aukera izango du 30 euroren truke; bazkideek, berriz, 25 euro ordainduta. Bonoa hartu ezan lehen eguneko Anthony Blakek hiru saioa 15 euro ordaindu behar da; Txan magoak aurkeztu eta mago entzutetsuak elkartzeko dituen magia garorako sarrera 12 euro; eta magia mostrararen amaiera ekitaldira sartzeko 10 euro.

MUSIKA

# Ruper Ordorikaren kontzertua Espaloian

I.A. to de la Casak baxua eta Ruper Ordorikak gitarra jotzeaz gain abestiei ahotsa ipiniko die.

Bihar, zapatua, kontzertua eskainiko du 22:30ean Ruper Ordorikak Espaloian, Mugalaris taldearekin batera. Azken diskoko kantuak zein zaharagoak abestuko ditu abeslari oñatiarrak.

Martxoan, aspaldiko partez taldearekin elkartu da laukotea osatuz, eta hainbat emanaldi egingo dituzte.

Dani Perezek gitarra joko du, Nando de la Casak batera, Alber-

**LEHENGO KANTUAK**

Aurten asko jardungo ez badute ere, euren asmoa iazko emanaldiak eraberritzea da. Horretarako, azken diskoko abestiez gain, sasoi ezberdinetako kantuak joko dituzte kontzertuetan.

Jendea aurrez sarrerak erosten ari den arren, oraindik bada go eskuratzeko aukera. Bazkideek zortzi euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek hamar.



Abeslari oñatiarrak Mugalaris taldearekin jardungo du, eta hainbat sasoiako kantuak eskainiko dituzte.

NEREA URTEAGA

JOLASAK

# Ziburu berriak ipiniko dituzte aurten herriko hiru gunetan

I.A. Gaur egun herriko hiru gunetan daude ziburuak. Udalak komenigarritzat jo du ziburuon egoera aztertzea eta behar izanez gero konpontzea. Bestalde, aurreratu du aurten herriko beste hiru gunetan ipiniko dituztela umeendako ziburuak.



Gaur egun Asentzion, eskola ondoan eta kiroldegi aldamenean daude ziburuak.

Asentzion, kiroldegiaren ondoan eta eskolaren aldamenean daude gaur egun umeendako ziburuak.

Aspaldi ipinitakoak direnez, Udalak uste du ziburuon azterketa egin beharko litzatekeela zein egoeratan dauden ikusteko. Izan ere, hondatuta egonez gero, arriskuak izan daitezke bertan jolasean ibiltzen diren txikiendako.

Oraindik ez dute erabaki zeinek egingo duen azterketa. Bali-teke enpresa bati ematea ardura, proposamena jaso baitute.

**BERRIAK**

Bestalde, aurreratu digute aurten herriko beste hiru gunetan ziburuak ipiniko dituztela: Pagatzen,

baserriaren azpiko partean egingo duten aisialdi gunean; San Roke ostean eta Domingo Iturbe kaleko iturriaren ondoan.

BASERRIAK

# Hiru Baserri bide konpondu eta seinale berriak ipiniko dituzte

I.A. Baserriarren batzordean adostu dituzte aurten egin beharreko inbertsioak. Beste gauza batzuen artean daude hainbat baserriara doazen bideak konpontzea eta hauetan seinaleak ipintzea. Bestalde, bide bazterrak eta arekak ere garbituko dituzte ekainetik aurrera.

Baserrietako bideak konpontzeko 99.870 euro erabiliko dituzte. Aurten Azurtza, Beizu eta Arraozerako bideak konponduko dituzte. Orain hainbat enpresari aurrekontua eskatuko diete eta asmoa da uztaila eta urria artean lanak egitea.

Bideetan seinaleak ipintzeko, berriz, 20.880 euro erabiliko dituzte. Aurrez eredu batzuek egin eta

baserriarren iritzia jasoko dute ipini aurretik.

**GARBIKETA**

Bideak konpondu eta seinaleak ipintzeaz gain, urtero bezala bide bazterrak garbituko dituzte. Ekainean hasiko dira sasiak kentzeko lanekin. Hainbat gunetan, gainera, arekak ere garbituko dituztela esan digute.

HAUTESKUNDEAK

# EAJ-EA lehenengo 301 botorekin

I.A. Normaltasunez joan zen hauteskunde eguna. 860 elgetarrek zuten botoa emateko aukera, eta 659 joan ziren. Abstentzioa, %23,4koa izan zen. Aurreko Eusko Legebiltzararako hauteskundeetan baino altuagoa; orduan %15,4koa izan zen.

**KOALIZIOAK BEHERAKADA**

EAJ-EA koalizioak eskuratu ditu boto gehien, 301; aurreko hautes-

kundeekin alderatuz gero, jaitsiera nabarmena izan du, orduan 488 boto jaso zituen eta.

Bigarren indarra EHAK izan da Elgetan 170 botorekin. Aurreko hauteskundeetako EHren botoekin parekatuz gero (129 jaso zituen orduan) igoera izan du. Aralar, berriz, aurrekoetan ez zen aurkeztu eta 106 boto jaso ditu orain.

Ezker Batuak 27 boto eskuratu ditu; PPK 25 eta PSE-EEk 22. Boto zuriak, berriz, zortzi izan dira.

**BOTOEN BANAKETA**

	2001-05-13 KOPURUA	%		2005-04-17 KOPURUA	%
ERROLDA	820	%100	ERROLDA	860	
EAJ-EA	488	%70,6	EAJ-EA	301	%45,6
EH	129	%18,7	EHAK	170	%25,7
PSE-EE	11	%1,5	PSE-EE	22	%3,3
PP	39	%5,6	PP	25	%3,7
ARALAR	—	—	ARALAR	170	%16
IU-EB	22	%3,1	IU-EB	27	%4
BESTEAK	2	%0,3	BESTEAK	0	%0
ZURIAK	1	%0,1	ZURIAK	8	%1,2
BALIOGABEAK	0	%0	BALIOGABEAK	0	%0

KIROLA

**PARTIDUAK**

**ETB KANTXA (PILOTA)**

**Apirilak 22**  
21:00: Gonzalez-Elizalde (23 urtez asp.)  
Gero: Erroizenea-Arkoia (23 urtez asp.)  
Gero: Baez II-Maiaxetxerria (23 urtez asp.)  
Gero: Garzandia-Enunziaga (23 urtez asp.)

**Apirilak 24**  
11:00: Gorka-Elustondo (Kadeteak)  
Gero: Merino-Quina (Kadeteak)  
Gero: Castillo-Martinez (23 urtez aspikoak)  
Gero: Merino-Esnaola (23 urtez aspikoak)

**Apirilak 23**  
16:15: Diez-Barberena (Kadeteak)  
Gero: Gorrero-Juanenea (Kadeteak)  
Gero: Narbarte-Esnaola (Kadeteak)  
Gero: Garcia-Narbarte (23 urtez aspikoak)  
Gero: Azagirre-Lasa II (23 urtez aspikoak)

**ARETO FUTBOL TXAPELKETA**  
**Apirilak 23**  
15:00: Vidos-La Kokotxa . . . . . Txapela  
16:00: Añiketan-Txapela . . . . . La Kokotxa  
17:00: Mankanaki-Maccabi . . . . . Isspro  
18:00: Isspro-Fuxion . . . . . Maccabi

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a / 4. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS1084/02



Arrasate-Oñati lasterketako antolatzaile taldekoak izan dira epaimahaian.

## 14 lan Arrasate-Oñati lasterketaren irudirako

OIHANA ELORTZA

Guztira 14 lan aurkeztu dituzte Arrasate-Oñati herri lasterketako kamiseta diseinu lehiaketara. Egile gehienak Oñati eta Arrasatekoak izan dira, baina Durangoko eta Bermeoko egile batzuek ere aurkeztu dituzte euren lanak. Epaimahaiak, azkenean, Arrasateko Gorka Zubizarreta gazteak aurkeztutako lana aukeratu du. Gorkak 26 urte ditu eta badu eskarmen-tua antzerako lehiaketak irabazten. Eskoriatzako Ibarraundi museoko irudi lehiaketa ere berak irabazi du.

### MAIATZAREN 7AN

*Jantzi kirola euskaraz!!* izango da aurten ere Arrasate-Oñati lasterketako leloa eta maiatzaren 7an izango da 18:30ean. Izena emateko epea zabalik dago eta Laixaneko zein AEDko bulegoetan eman behar da. Elkarteko bazkideek beherapena izango dute. Hala ere, egunean bertan ere izango da aukera izena emateko lasterketa hasi aurretik. 11 kilometro eta 700 metro ditu lasterketak. Arrasatera joateko autobusa egongo da 16:45ean.

### GORKA ZUBIZARRETA/IRABAZLEA

*"Diseinu bertikala egin dut txantxiku bat ageri da antxintxika"*

#### Zorionak.

Eskerrik asko. Eguazten goizean deitu zidaten etxera Laixanetik eta pozik entzun nuen mezua.

Nahiko azkar egin nuen diseinua eta gero dudan egon nintzen aurkeztu edo ez; bezperan entregatu nuen.

#### Nolako diseinua egin duzu?

Txantxiku baten oinatzak ageri dira hasieran eta txantxikua bera bukaeran; antxintxika, saltoka doan txantxiku bat da, azken finean.

#### Hasieratik ikusi zenuen argi kamisetaren diseinua?

Txantxikua agertu behar zela argi ikusten nuen eta berehala hasi nintzen lanean. Dragoia ere egin nahi nuen, baina biak sartzea irudia kargatzea izango zela pentsatu nuen gero.

Normalean, eskuz egiten ditut hasierako marrazkiak, disei-



nuak, baina oraingoan hasieratik nuen argi ideia eta ordenagailuan diseinatu dut zuzenean. Zein kolore erabili dituzu?

Berdea eta urdin-morea; berdea txantxikuagatik eta morea Arrasateko kolorea delako. Gainera kontrastea bilatu nahi nuen. Zein berezitasun du zure lanak?

Bertikala dela. Goitik behe-rako diseinua da.

### EUSKARA JARDUNALDIAK

## Euskaraz arituko dira hainbat aditu

O.E.

Euskara jardunaldiak antolatu ditu datorren asterako Elkar Hezi ikastetxeak. Hainbat aditu etorriko dira Oñatira euskarari buruz hitz egiteko, horien artean Euskaltzaindiako kideak.

Datorren asteko hiru egune-tan egingo dituzte jardunaldiak. Martitzenean, Xabier Kintana eta Henrike Knörr euskaltzainek euskararen jatorriaz, hizkuntzaz beraz eta urteetan izan duen bilakaeraz jardungo dute. Hurrengo

egunean, eguaztenean, oñatiere-ren ezaugarriak izango dituzte hizpide mahai inguruan Gerardo Elortzak, Roberto Altunak eta Asier Sarasuak.

#### GANDIAGA ETA VILLASANTE

Egubakoitzean, omenaldia egingo diete Villasanteri, Gandiagari eta Izagirri. Gernika, Mendata eta Urretxuko ordezkariak etorriko dira; baita Euskaltzaindiako ordezkari bat ere. Hizlariak Paulo Agirrebaltzategi eta Pello Zabala izango dira.



Elkar Heziko batxilergoko bigarren mailako ikasleek dute ihardunaldien ardura.

### LABUR

## UEUko ikastaroetara joateko laguntzak emango ditu aurten ere udalak

Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetarako laguntza bekak emango ditu aurten ere udalak. Udaletxean eskatu behar dira baldintzak eta baita eskaera egin ere. Bestetik, Euskarara eta Hezkuntza batzordeak udaleku irekiak antolatu dituzte udazterako eta begirale izan nahi duenak ere udaletxera jo behar dute.

## Liburuaren eguneko ekitaldiak egingo dituzte liburutegian bihar eta martitzenean

Liburuaren nazioarteko eguna da bihar, zapatua, eta liburutegian ospatu egin nahi du. Eguenean ipuin kontalariak egon zirean umetendako eta nagusiendako. Bihar, zapatua, liburuak banatuko dituzte liburutegiko bazkideen artean, eta martitzenean, berriz, Jaso-ne Osoro idazleak hitzaldia emango du. Literaturaz arituko da elgoibartarra liburutegian bertan 19:30ean.



# ARANZADI IKASTOLA BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIOA

apirilaren 25etik maiatzaren 6ra

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA  
Osasun eta Natur Zientziak  
Zientifiko-teknikoa  
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA

Kultura eta aisialdirako jarduera osagarriak


Batxilergo ondoko ikasketa guztietarako prestakuntza

Konfiantzan oinarritutako harremanak

Ikastolaren kudeaketan ikasleen parte-hartzea

Euskaraz bizi izaten aitzindari

Emaitza akademikoak gure kalitatearen adierazle



ARANZADI  
IKASTOLA

HERRI ONURAKO  
IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA



San Martin Plaza, 4 Tel.: 943 76 90 71/66 –faxa: 943 76 91 77  
bergara@aranzadiikastola.org / www.aranzadiikastola.org



# IPINTZA INSTITUTUA 2005/2006 BATXILERGORAKO AURREMATRIKULA

Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra



Giza eta Gizarte Zientziak

Natur eta Osasun Zientziak

Teknologia (Praktikak Miguel Altunan)

**ATE IREKIAK: Apirilaren 26an, 18:30ean**

**IPINTZA INSTITUTUA**

Boni Laskurain 19 Tel: 943 76 31 42 Faxe: 943 76 06 80  
e-maila: 012981aa@hezkuntza.net • www.goieskola.net/ipintza

 **aralar**

**Debagoiendarroi**

**ESKERRIK ASKO**

**Zuen babesari zor diogu gure lana**

**Aro berria, bide berriak**